



GEHIGARRI BEREZIA

Saritutako lanak

Ipuinak

1. saria: Oroitzapenen paperak. *Iñaki Iturain*

2. saria: Mona Beadle. *Libe Larrarte*

3. saria: 08:45. *Garazi Urretabizkaia*

Accessita: Baina zein uda bakarra. *Mirari Arriola*

Olerkiak / Bertsoak

1. saria: Bei gizenak eta bei argalak. *Joxe Mari Lertxundi*

2. saria: Ilusioaren kolorea. *Garazi Urretabizkaia*

3. saria: Sentimenduez. *Iker Gurrutxaga*

Accessita: Bihotzetik behatzetara hunkitu. *Idoia Etxabe*

Accessita: Kontrola. *Goiuri Unanue*

Oroitzapenen paperak

Iñaki Iturain

Gure aita Ossegorreko kanposantuan dago. 1971ko azaroaren 9an hil zen, orain dela 40 urte, De Gaulle hil zen egun berean. Gizon handiak izan ziren biak. Manuel Zaldua zuen izena. Ama ere, Maria Berastegi, hantxe dago, gizonaren ondoan, hemendik ibesi joan ginenean hartu gintuen herriko lur hartan.

Dena 1936an hasi zen, gerrarekin batera. Nazionalak sartu aurretik, aitak ospa egin behar izan zuen. Barkuan joan ziren, San Juan de Luzera. Tubalek eraman zituen. Herriko apaiz bat ere joan zen, Santi Iturrioz. Jende dexente zen Oriotik joana.

Gure aitak, atzean andrea eta lau seme-alaba utzita alde egin zuen. Zabarrenak hamar urte zituen eta gazteenak, nik, lau besterik ez. Aitak orduan uste zuen aste batzuetan edo, asko jota, hilabete gutxira dena konpondu eta etxera bueltatuko zela. Ez zekien bizitza osorako abentura abiatu zuela Tubaleko bidai hartan.

Horrelaxe hasten da aurtengo udaran kontatu didaten istorio harrigarria. Emakume bat etorri zitzaidan kontatzera. Nik ez nuen ezagutzen andrea eta hasieran seko harritura geratu nintzen, hondartzako tabernako terrazan nengoela, aldamenean eseri zitzaidanean. Nire artean, neri etorri behar holakoak!. Gure amaren bidez jakin omen zuen ni kazetaritza bukatu berria naizela, lanik gabe nagoela eta idaztea gustatzen zaidala. Nik baino gehiago zekien nitaz. Gure ama bere lehengusu baten iloba omen da eta, hortaz, azaldu nahi zidan istorioa, nolabait, urrutitik bazen ere, nirea ere badela. Orduan zalantzan geratu nintzen, ez nekien zerbait eskatzen ari zitzaidan edo eskaintzen. Bere aitaren bizitza azaldu nahi zidan, berak asko nahi ziola aitari, gizon handia izan zela, aspaldi samar hil bazen ere oso gogoan duela eta haren bizitzako gorabeherak baten batek paperean jartzea nahi zuela, bilobei erakusteko. Ordurako, intrigatzen hasita nengoen. Emakumeak indar handia jartzen zuen bere hitzetan, ilusioa antzematen nion, bihotzetik hitz egiten zuen. Ni, artean, hitzik ere esan gabe nengoen, zer esan ere ez nekiela. Emakumearen isilune bat erabili nuen, hitza hartzeko. Galdetu nion ea oriotarra zen. Baietz, oso-oso aspalditik Frantzian bizi dela, baina Orion jaioa dela eta, udaran, urtero etortzen dela jaioterriara aste batzuk pasatzera. Orain oso aldatuta ikusten

duela herria, baina bizi den artean Oriora etortzen segituko duela. Emakumeak azentu berezia du, arraroa, gainera tarteka frantseseko hitzak botatzen ditu, baina hitz-tun ona da, eta etorri handikoa. Eta, hara, gustatu egin zitzaidan. Ordurako erabakia neukan baietz esatea, gutxienez entzungo niola esan nahi zidana eta gero gerokoak! Ez nuen presarik, eguraldi ederra zen itzalean eserita segitzeko eta, beste zerbeza bat eta harentzako tea eskatzearekin batera, zerbitzatzen zebilen neska beltzarnari boligrafoa eta papera eskatu nizkion. Ekarki zitueanean, esan nion Isabeli kontatzeko bere aitarena. Ordurako banekien haren izena, pasean zebilen aitona bat hurbildua zitzaion agurtzera eta haren agurretik ikasi nion izena.

Berehala ekin genion, hark aitarenak azaltzeari eta nik boligrafoa astintzeari. Minutu gutxira, galdetu zidan ea zer hizkuntzatan ari nintzen idazten eta erdaraz idazteko eskatu: bera euskaraz eta tarteka frantsesez kontatzen ari zitzaidana nik gaztelerez jartzeko, alegia. Xelebrea iruditu zitzaidan, gure herriaren hizkuntza-egoeraren metafora polita. Baina pentsatu nuen ariketa polita izango zela niretzat. Erantzun nion bere hitzak euskaraz jasoko nituela, errazago zitzaidala entzundako hizkuntzan idaztea, eta gero ikusiko genuela zer egin. Isabelek kontu asko esan zizkidan bere aitaz, asko, batzuk hunki-garriak. Emakume haren ahotik entzundakoek osatzen dute hemengo istorio hau. Historia ere bada, gainera: gure herriarena.

San Juan de Luzen kanpamentu bat jarri zuten hemendik joandakoak hartzeko. Bertan aste batzuk pasa eta gero, haie-tako batzuk herrira bueltatzea erabaki zuten. Haien artean zen aitaren lehengusu bat ere, Pablo Zaldua. Oriora ailegatu zela jakin zuten bezain laster atxilotu zuten. Bi urtez eduki zuten kartzelan, pasara handia hartuta atera zen handik, ikaragarriak jasota. Ez zen sekula lehengoa izan, eta han barrapatutako gaitz batek eraman zuen betiko handik gutxira. Gure aitak ordurako erabakia zuen bertan segitzea. Esana zioten etortzen bazen garbitu egingo zutela. Ba al dakizu zein zen gure aitaren delitua? Nazionalista izatea, bere herria maitatzea. Oso gizon jakintsua zen eta herriko umeei erakusten ere jarduten zen, irakurtzen eta idazten erakusten zien. Garai hartan apaizek bakarrik estudiatzen zuten eta

aitak alde horretatik suerte handia izan zuen: hamar urte zituela, jesuitek eraman egin zuten Loiolara. Ordurako kon- turatuta zeuden oso mutil bizkorra zela. Loiolan urtebete estu- diatuta, Suitzako hiri batera eraman zuten, Friburgora, Sui- tza eta Frantzia arteko mugatik oso gertu dagoen herri ba- tera. Han ia hamar urte eman zituen, apaizgai, estudiantzen. Latina eta grezieraz gain, frantsesez ere ondo ikasi zuen eta pixka bat alemanez ere bai. Baina hogeitaz urte zituela, hura dena alde batera uztea erabaki zuen. Herrira bueltatu zen, arrantzan egin nahi zuen, itsasoa behar zuen. Eta horretan ibili zen gerra madarikatu hura etorri zen arte, arrantzan. Eta lehorrean zen garaian herriko gaztetxoei erakusten. Esko- la haiek emateko herriko batzokiko gela bat erabili izan zuen, ibesi joan zen arte. Batzoki hartako agintariak esan zioten hobe zuela joatea, Irunen eta Donostian nazionalistak fusilatzen ari zirela eta, badaezpada, joateko herritik, haiek sartu aurretik.

Aitak ez zuen uste gerra hura luzatuko zenik, are eta gutxiago Francoren golpista haiek gerra irabaziko zutenik, baina Tubalen abiatutako bidaia luzatzen ari zen denboran. Hilabete batzuk pasatuta, San Juan de Luzeko kanpamen- tutik Ossegor aldera pasatu zen, Landetako herri hartara. Ez zegoen urruti, arrantza portua zuen eta sos batzuk ate- ratzeko modua bilatzeko aukera ematen zion. Ez zitzaion asko kostatu, berehala hasi zen hango bapote batean, arrantza- le.

Hiruzpalau aldiz elkartu nintzen Isabelekin. Biga- rren topaketan biloba gazte batekin etorri zen hitzor- dura. Bisitan etorria zitzaion Frantziatik, hamabost egun pasatzera. Mutil jatorra zen, alaia eta atsegina. Isabelek esan zidan Bordeleko unibertsitatean estudiantzen ari zela eta han ikasle euskaldunekin euskara pixka bat ere ikasi zuela. Egin nizkion galdera batzuk, ea ulertzen zuen. Nik frantsesez adina bazekien. Ikasteko gogoaz zeukan eta esan zigun guk euskaraz segitzeko, bera saiatuko zela ulertzen. Gero, egun batean, deitu egin zidan, ea Kukuarrirako bidea ezagutzen nuen, esan ziotela oso ederra zela eta ea lagunduko nion. Tontorraren ondoko zelaian itsasoari begira eserita ginela, gazte hegalariek parapentean salto egiten zuten bitartean, gauza asko kontatu nizkion gure herriaz, bere amonaren jaiote- rriaz. Berak interes handia zeukan, galdera asko egin zizkidan: tontorreko gurutzeaz, inguruko baserriez, arraunlariez, nitaz... Bertako askok baino interes han- diagoa zeukan herriko gauzez. Denbora bagenuenez, bere amona kontatzen ari zitzaidan historiaren zertze- lada batzuk ere azaldu nizkion. Harrituta geratu zen,

eta hunkituta. Mutil samurra da. Ilunabar zoragarria ikusita bueltatu ginen etxera.

Gu, bitartean, Orion ginen. Amak ahal zuena egiten zuen, lau ume txiki, guri jaten eman behar eta gajoak nabikoa lan bazuen familia aurrera ateratzen. Gorriak pasatu zituen. Ni orduan ez nintzen asko enteratzen, baina gerora ordukoaz gogoratzen zen bakoitzean negarrez hasten zen. Eskerrak Oriok itsasoa eta lurra biak zituen, jaten emateko. Arrantzaleak lehorreratzen zirenean, moilara joaten zen, sardina edo antxoa batzuk zituela etxeratzen zen beti. Gainera, bazituen fami- liar baserritarrak eta haiengandik ere beti izaten zen zerbait, babarrunak, artoa, sagarrak eta holakoak. Haiei esker atera ginen aurrera.

Urte batzuk pasa eta gerra bukatu egin zen. Irabazi behar ez zutenek irabazi zuten eta gure aitak han segitzea erabaki zuen. Horixe esan zioten hemendik, ez bueltatzeko, bestela garbitu egingo zutela. Eta gerra bukatu zen egun beretik hasi zen plana prestatzen gu hara joateko, han bizimodu berria hasteko. Bitartean gure amak gauero, oberatu aurretik, armai- ruan gordeta zeukan aitaren erretratu handi bat erakusten zigun. Aita ez abazteko.

1942 urtea zen, gerra bukatu zela hiru urte paseak ziren, baina beste gerra bat ere hasia zen, mundu gerra, gure aita bete-betean harrapatu zuena. Gerratik ibesi joan eta beste batekin topo egin! Gizon hura ez zen geldirik egotekoa, ez zen behin ere izan. Frantzian, De Gaullek Ingalaterratik irra- tiz egindako deiari erantzunez, herriak sortua zuen alema- nen kontrako erresistentzia, hango okupazioaren kontra bo- rrokatzeko. Manuel haiekin hasi zen berehala. Mugalari ibili zen, erresistente frantsesak Bidasoaraino ekartzen. Ordurako ondo ezagutzen zituen hango bazterrak, inguruko baso, men- di eta errekek, eta laguntza ederra ematen zien Afrikara bidean ibesi abiatzen zirenei.

Bidasoa ibaian ibeslariak alde batetik bestera pasatzen laguntzen zion nafar batek ekarri zigun karta. Soinean zeka- rren txaketa zahar-zahar baten adabaki batean ezkutatuta. Amak poz ederra hartu zuen. Han esaten zigun nora eta nola joan behar genuen.

Orietik inori ezer esan gabe abiatu ginen, amak poltsa txiki bat besterik ez zeramala. Uztaileko egun eder bat zen. Guri esan zigun bisita egin behar geniola bere osaba bati Irunen. Egia, zaharrenak bakarrik zekien, Antoniok, hama- sei urte zituen orduan. Trenez joan ginen Pasaiaraino. Hango etxe batean ordu batzuk pasatuta, ilunduta, automobil zahar batek eraman gintuen Hondarribiraino. Han gizon bat ge- nuen itxoiten, eta errekek txoko ezkutu batean txalupa bat. Angulararen kontrabandoan zebilen gizona zen. Inguruan inor

ez zela aseguratuz zenean, esan zigun txalupan sartzeko. Ilunpetan, arraunean hasi zen. Irungo zubipera iritsi ginenean, halako batean, zubi gainean soldaduak ikusi zituen, Gestapoko soldadu alemanak. Ikaratuta edo, salto egin zuen uretara, gu han utzita. Antonio anaia eseri zen haren tostan, berak heldu zien arraunei, eta poliki-poliki, txalupa ezkutatu egin zuen kanabera batzuen babesean. Soldaduak ez ziren konturatu. Aurrera segitu genuen eta handik gutxira, leborretik seinale bat sumatu genuen, argitxo bat. Hari jarraituz, moila txiki batera ailegatu ginen. Han, aitaren lagun bat genuen zain. Hendaiako baserri batera eramán gintuen. Bi egunetara, Ossegorrera ailegatu ginen, aitaren herrira. Bizi naizen artean, ez dut abaztuko hara iritsi ginen momentu hura. Aita portuan zen, leborreratu berria, arrainak saretik askatzen. Ikusi gintuenean, harri biburtuta bezala geratu zen, mugitu ezinik. Korrika joan ginen harengana. Besarkada batean elkartu ginen seiok, negar batean. Hamar urte nituen. Gogoratzen naiz nik aitaren hanka bati heltzen niola, estu-estu.

Emakume atsegina da Isabel. Hirugarren aldiz elkar-tu ginenerako, konfiantza handia genuen, eta hondartzako tabernan afari legea egin genuen elkarrekin. Sardinak eta oilasko errea jan genuen. Ederki! Baita botila sagardo bana hustu ere. Berak ordaindu zuen, eskerrak eman nahi zizkidan egindako lanagatik. Hunkituta sumatuen. Kafea hartzen ari ginela, isilune luze baten ondoren, bat-batean, esan zidan berak ezagutu zuela nire aitona, nire aitaren aita. Erantzun nion nik ezetz, ni jaio aurretik hil zela, banekiela bere denbora guttian lana besterik ez zuela egin eta gaztetan pelotari ona izan zela. Horixe zen nik aitona nekiena.

Jean Paul, Isabelen biloba, joana zen bueltan Frantziara eta, hara iritsi orduko e-mail bat jarri zidan. Ederki pasatu zuela nirekin Kukuarriko egun hartan eta gonbidatu egiten ninduen Isabel Oriotik bueltatzen zenean harekin joan eta han egun batzuk pasatzera, berak erakutsiko zizkidala hango bazterrak, hura ere ederra dela.

Frantziako herri hartan bizimodu berri bat hasi zen guretzat. Aitak arrantzan segitu zuen lanean, guk frantsesez ikasi behar izan genuen. Etxean euskaraz hitz egiten segitu genuen beti. Zoritxarrez, ez geneukan Oriora etortzerik. Hango gerra ere bukatu zen halako batean. Eta, zorionez, hango irabazi behar zutenek irabazi zuten. Kostata, baina ondo obitu ginen hango bizimodura. Gustuena nire abizpa zegoen, aspaldiko partez lasai joatea zeukan eskolara, inork ez zuen mehatxatuko, ez jipoituko. Ez zeukan abaztuta nola Orion, gerra bukatu zenean, maistra berria etorri zitzaien, Señori-

ta Josefina, eta nola ia egunero jotzen zuen. Aita non zen jakin nahi zuen, “¿A donde se ha escapado vuestro padre?”, baina jakin gabe geratu zen. Neskatila harentzat liberazio izugarria izan zen eskola aldaketa.

Egun batean bisita izan genuen etxean, bi gazte agertu zitzaizkigun, Bidasoako muga pasatzeko aitaren laguntza jaso zuten bi parakaidista frantses ziren, gerrako merituegatik maila igoerarekin saritu zituzten bi militar. Beren esker ona adierazi nahi zioten aitari, dirua eskaini zioten, edo domina bat, bere gerra-merituengatik. Aitak ez zuen asko pentsatu behar izan. Erantzun zien eskertzen ziela gogoratu izana, baina zerbait hartzekotan Frantziako nazionalitatea nahi zuela. Militar baiek lortu egin zuten beren zorra kitatzea, Manueli berak eskatutakoa ematea. Frantses nazionalitatea lortu zuen familiako guztiontzat.

Aitak ondo pentsatua zuen, ordurako, gauzak nola etorriko ziren, etorkizuna ondo aurreikusita. Bazekien pasaportetik gabe nekez bueltatu abal izango zuela jaioterrira. Lehenengo aldian bera bakarrik etorri zen Oriora. Pasaporte frantsesa eskuan zuela, mugan, guardia zibilek goitik behera begiratu zioten abizen euskaldunak zituen gazteari eta, berak esan zigunez, gustura egingo ziotena egin ezinik geratu ziren. Pasatzen laga behar izan zioten. Hamaika urte geroago Orion zen berriz. Hantxe ikusi zuen Tubal moilan lotuta. Eta aspaldiko lagunak.

Handik aurrera, familia osoa ere etorri izan ginen Oriora. Gazteok bertan geratzeko eskatu ere bai gurasoei, baina baiek erabakita zeukaten Frantzian segitzea. Behin, gogoan dut, urte batzuk baziren Oriora etorri gabe, eta ni behin eta berriz ari nintzaion aitari: aita, Oriora joan nahi det, aita... Eta aitak plan ederra egin zuen. Iraileko egun batean, hango bapora batean itsasoratu ginen, Donostiaraino joan eta traineruen estropada ikusi genuen, nik aurreneko aldiz bizitzan. Estropada bukatuta, Hondarribiko barku batera pasatu nintzen, baporetik baporerera. Patroia aitaren laguna zen. Gau hartan Hondarribian lo egin nuen. Hurrengo egunean, etxe hartako alaba batek lagunduta, Oriora iritsi nintzen. Salsamendienean hartu nuen ostatu, hango nagusia aitaren lehen-gusua zen eta. Hango tabernan, artean, nabarmenak ziren bezperako arraun festaren arrastoak. Astebete pasatzeko baimena nuen. Nik ez nuen itzuli nahi eta Gabonak arte geratu nintzen, aitaren karta jaso eta haren agindua irakurri nuen arte. Etxean nahi ninduen.

Urte hartako Gabonak bereziak izan ziren Frantziako herri arrantzale hartan. Hilabete lehenago, gure aitaren bapora-ak naufragioa izan zuen hango barran, itsasotik portura zetozela. Olatu batek arroketa bota zuen barku txiki hura eta Manuelek

momentu batean uretan ikusi zuen bere burua. Igerilari ona zen eta ez zen asko larritu. Baina berebala barkuko lagun bat topatu zuen olatuen kontra borrokan, bretoia zen, hango gizon heldu bat, larri zebilen, ezinean. Ez zuen zalantza handirik izan, esku batekin atzetik heldu eta bizkarka igerian abalegin handia eginez, ederki kostata hondartzara iristea lortu zuen halako batean. Ordurako han ziren herritarak. Saiatu ziren gizajo hura bere onera ekartzen, baina ez zuten lortu, han gelditu zen betiko. Gabonetan haren alargunaren bisita izan genuen etxean, opari batekin etorri zen, aitak egindako abalegina eskertzerara. Oriotik ibesi Ossegorrera ailegatu ginen egunean bezalaxe egin genuen negar denok.

Pixkanaka bazi eta bakoitzak bere bidea egiten hasi ginen zalduatarrok. Ni ezkondu egin nintzen, familia izan nuen, hiru ditut. Burdeusetik gertu dagoen herri txiki batean bizi gara, mabastiz inguratuta. Aita aspaldi hil zen, ni ere aurrera noa eta aurten pentsatu dut hori dena paperean jartzen ez badut abaztuta geratuko dela betiko eta nahi dut Frantzia osoan barreiatuta dagoen gure familiak, gure bilobek, jakin dezaten nondik datozen eta zerk eraman zituen haien aitona-amonak hara, gauzak nola joan ziren orain 75 urte.

Horraino Isabelek kontatu zizkidanak. Udara bukatu da eta andre oriotar frantsesa hantxe joan da bere herrira. Bereak han ditu zain. Aurten gustura joan da, etekina atera dio oporraldiari, oroipen lana eginda doa, bere aita zenaren bizitza azaltzen duten paperak besapean daramatzala. Gabonetan itzultzekotan da. Orduan argazkiak ekarriko dizkit, asko omen dauzka, aspaldikoak, ederrak. Eta bere senideek esandakoarekin eta osatu egingo omen dugu orain artekoa. Nigmatik

baietz, Gabonetan hura etorri zain egongo naizela. Ez nion ezer esan Jean Paulek hara joateko egin zidan gonbitaz.

Isabel agurtu eta gau hartan, etxean, zalduatarren historia buruan nerabilela, Isabelek gure aitona esan zidana etorri zitzaidan eta ederki damutu nintzen, ez baitzidan ezer esan, nik moztu egin nion berak hasitako hizpidea, ez nion aukerarik eman hitz egiten segitzeko. Eta ez dakit zergatik baina gero eta indar handiagoz zebilkidan buruan ideia bat bueltaka: Isabelek zerbait esan nahi zidan gure aitona zenaz.

Bi astera, karta bat jaso nuen Frantziatik. Isabelena zen. Hitz batzuk eta argazki bat. Idatziak sekulako harrera izan omen zuen bere senideen artean. Argazkia nire aitona zen, gazte asko, txapela buruan eta pelotari jantzian, Miarritzeko frontoian egina. Argazkiaren atzealdean hitz hauek: *para mi seguidora mas fiel, pour ma jolie, 14 de julio de 1952.*

Argazkian aurrez aurre nuen aitona aurpegira begira-begira geratu nintzen. Nire sekulako antza zuen, izugarria. Aztoratu egin nintzen eta, bat-batean, burutik pasatu zitzaidan banekiela zergatik aukeratu ninduen ni andre hark, istorio haiek entzun eta idazteko. Orduan hartu nuen erabakia: joan egingo naiz, Isabel Gabonetan etorri zain egon gabe; udazkeneko zubi horietako batean Frantziako herri hartara joango naiz. Nire aitona historia jakin nahi dut andre sutsu haren ahotik. Gainera, nire frantsesak pausu bat emango du aurrera eta frantses gazte jator eta guapo hark ere hitz batzuk ikasi litzake euskaraz nirekin, nire ahotik.

Mona Beadle

Libe Larrarte

*Hau Mona Beadleren istorioa da.
Bere bizitzako momentu kritiko batean, txikitari
bere aitak esandakoa gogoratu zuelako.*

2011ko urtarrilak 22, Edinglow

Ixten ari diren taberna bat, goizeko bostak edo beranduago. Barraren kontra jarrita, lo hartzen ari den neska bat, Mona Beadle. Eta, aldamenean, mozkor bat erretolika ematen. Biak bakarrik daude tabernan. Kamarerorik ere ez dago.

—*Hey, morena, how are you doing?* (Aizu morena, zer moduz zaude?) —esango dio mozkorrak. Monak ez du burua altxa ere egingo barratik.

—*Hey, you, what's your aim in life?* (Zein da zure helburua bizitzan?)

—*Excuse me?* (barkatu?) —erantzungo dio azkenean Monak, esfortzu handiarekin eta disgustu aurpegiarekin.

—*Yes, what's your aim in life?* (Zein da zure helburua bizitzan?) —jarraituko du esaten mozkorrak, erdi filosofo.

Orduan Monak, berokia hartzen du eta alde egiten hasten da.

—*I don't have any* (Ez dut helbururik) —erantzungo dio aulkitik altxatzen den bitartean—. *Asshole!* (Babua!)

Bukaeran, Mona barratik urruntzen ikusten da balantzaka, eta azkeneko koskan ia erori egiten da.

(Yuri Schmid, Edingloweko Monaren lehen mutila)

Makillatzen amaitu zuenean, orfidal pare bat hartu zituen eta kaleko hotzerako prestatu zen lumazko beroki handia eta bota berriak jantzita.

Aurrena iritsi zen tabernara eta garagardo bat eskatu zuen Yuriri itxaroten zion bitartean. Yuri Schmid, Austriako bere printzea. Hilabeteak ziren ikusi ez zirela eta nahiz eta internetez ia egunero hitz egiten zuten, oso urduri zegoen. Normalen ez zuen inoiz erretzen bakarrik baldin bazegoen; baina, esan bezala, zeharo urduri zegoen eta zigarro bat piztu zuen.

Eta Yuri atetik sartzen ikusi zuen. Ahaztuta zegoen ze guapoa zen. Pare bat minutu beranduago:

—*Would you like another pint?* (Beste garagardo bat?) —galdetu zion Yurik.

—OK (Bale).

Aurrekoa amaitu baino lehenago, beste garagardo bat zuen mahai gainean eta ondo ezik jartzen ari zen. Yurik bere zigarro paketea atera eta Monari eskaini zion. Ez zuen gogorik, baina hartu egin zuen. Eta, bat-batean, bero izugarria zuen eta izerditan ari zen.

Egia esateko, elkarrizketa ez zen oso ona izaten ari, baina asko gustatzen zitzaion Yuri.

Taberna jendez betetzen hasi zen eta ozenegi hitz egiten zuten denek. Beste garagardo bat eskatu zuen eta beste zigarro bat. Zigarroarena eskuekin zerbait egiteko zen. Baina segituan konturatu zen zerbait ez zihoala ondo. Buruak bueltak ematen zizkion eta komunera aldegin behar izan zuen hantxe bertan botaka ez hasteko.

Komunean ilea zikindu zuen pixka bat eta ia lo hartu ere bai komunaren kontra. Ez zegoen seguru zenbat denbora pasa zuen erdi lo, eta badaezpada ere, Yurirengana ez itzultzea erabaki zuen eta etxera bueltatu zen. Etxean berriro botaka egin zuen.

Mona autobusean dago ikastolako klasekide guztiarekin Edinglowera txangoan. Bazkaltzeko geratzen da autobusa eta gustatzen zaion mutilak pate bokadiloa eskaintzen dio. Monak, ezetz, eskertzen diola baina tortilla patata bokadiloa duela motxilan. Baina motxila falta zaiola konturatzen da. Ez da posible, urte betetarako etorri naiz eta, pentsatzen du. Desesperatzen hasten da; aurreztutako guztia, eta okerrago oraindik, bere arropa guztia... Nahi duen gauza bakarra etxera, Northportera, bueltatzea da.

Eta orduan esnatu egiten da eta izugarri pozten da egia ez izateaz. Ez daki, ordea, gehiegi pozten den Edinglowen egoteaz. Baina, behintzat, bere arropa eta gauza guztiarekin etorri da.

Aste batzuk pasa ziren azkenekoz atera zenetik eta gau horretan, lankideek pisu bateko festa batera gonbidatu zuten. Oraindik ez zuen jende asko ezagutzen hirian eta laneko hauek ez ziren oso interesgarriak ezta ere, baina etxean asko aspertzen zen.

Geratutako ordua baino pare bat ordu beranduago iritsi zen pisura. Ohiko ikasle pisu bat zen, hiriko zen-

troan. Hozkailuan berak ekarritako zerbezak laga zituen eta bat ireki zuen berarentzat. Zigarro bat nahi zuen baina tabakoa etxean ahaztuta utzi zuela konturatu zen. Ezagutzen zuen bakarrenetakoari eskatu zion (pentsatuz gau osoan eskatzen ibili beharko zuela) eta beste behin, zigarroarekin burua joan zitzaion pixka bat. Behintzat sentsazio berria zen eta atsegina egin zitzaion.

Inork ez zion kasurik egiten eta bera ere ez zen gehiegi saiaturen. Mutil batean fijatu zen, baina neskalaguna zuen. Beste pare batekin hitz egin zuen: *Nolatan ezagutzen duzu Alan? Nirekin egiten du lan. A! Eta zuk? Nire pisukidea da. A! Edinglowekoa zara? Ez, urtarrilean etorri nintzen. Ikasketak? Bai, bueno, oraindik ez dakit ondo zer, baina hori da asmoa. Zer daukazu pentsatuta? Gidoilari edo, seguru-enik. Interesgarria... Bai, bueno.* Denei iguala kontatzen zien baina berak ere ez zuen sinesten.

Aldamenekoen elkarrizketa entzuten jarri zen disimuluz: ur baso bat gau osoan zure ondoan uzten baduzu lotan zauden bitartean, hurrengo egunean burbuilak izango ditu edo ez ditu izango, bakoitzaren energiaren arabera.

—Zientifikoki demostratuta dago —zioen batek.

Sukaldera joan zen beste zerbeza baten bila. Mozkorra zegoen ordurako. Eta burbuilen diskurtsoarekin fondon, azkenaldian bere bizitza zergatik zein hain ustela pentsatzen jarri zen. Seguru, ur baso bat utziko balu gau osoan bere ondoan, hurrengo egunean urak kiratsa botako lukeela.

Edinglowekin amankomunean zuen gauzetako bat umore aldaketak ziren. Oraintxe eguzkia, oraintxe euria. Lainoak hain azkar mugitzen dira Edinglowen, lurtean etzanda, Monak logela segundo batzuek bakarrik ikusten duela argitsu. Gero dena iluntzen da bat-batean, gero berriro argitu...

(Jonathan Marks, Edingloweko Monaren bigarren mutila)

Jonny, kasualitatez ezagutuko du goiz batean, bizikletaz lanera doala. Galdu egingo da eta semaforoan geldituta, mutil bat ikusiko du, Jonathan edo Jonny (mundu guztiak deitzen dion bezala).

—Barkatu, hau Ramshackle kalea al da?

—Bai. Nora joan nahi duzu? galdetu dio Jonnyk. Mona segituan gustatuko zaio.

—Ba Princesera, baina ez dakit hemendik joaten.

—Itxoin, goazen espaloira —eta biak espaloian—, erraza da: segi zuzen, gero eskuinera, gero bigarren

semaforoan ezkerredera eta hortik zuzen dena.

—Bale, eskerrik asko —baina, beti gertatzen den bezala, bigarren indikazioan galdu da.

—Nongoa zara? —azentuan nabaritzen dio Jonnyk ez dela bertakoa.

—Northport-ekoa.

—O, eta zer egiten duzu Edinglowen?

—Ezer berezirik ez, egia esan.

—Ja, ja, ja! —urduri barrez— Ba... ondo ibili... Egunen batean kafea hartzeko geratu nahi baduzu edo...

—A, ba... bale, bai.

—Zein da zure emaila? —Monak emaila eta telefono zenbakia emango dizkio, biak.

—OK. Egun ona izan! —Jonny atsegina izaten saiaturiko da.

Agur esango dute eta Jonnyk pare bat egun itxarongo ditu Monari idazteko eta kafe batera gonbidatzeko.

2011ko abuztuak 10, Edinglow

Nahiz eta sei hilabete baino gehiago pasa diren Yuri azkenekoz ikusi zuenetik, Monarentzat oraindik ere fantasma bat izaten jarraitzen du. Esan nahi da, leku guzti-etan ikusten duela. Eta orain, Edinglowen uda denean, eta dagoen turista pilarekin, oraindik eta gehiago. Hori gertatzen zaio, egiatan ikusi egin nahi duelako eta, era berean, ez duelako ezergatik berriro ikusi nahi (batez ere, Monak hamar mila mezu bidali dizkiolako eta Yurik ez diolako kasu zipitzik egin). Sekulako sustoak hartzen ditu ia egunero mutil ile hori altu guztiekin.

Eta okerrena da ez duela Yuri ia ezagutu ere egiten. Ez zutela ia ezagutzeko denborarik izan. Igual horregatik dago hain obsesionatuta eta ia egunero mezu berri bat bidaltzeko tentazioa izaten du, patetismoaren limiteak aspaldi pasata.

Laburtuz, uda bitarteko denbora guztia erdi depresio arraro batean pasa zuen Monak. Egin zuen gauzarik onena bere lan nazkagarria uztea izan zen. Nagusiaren barre diabolikoa (Monak perfektu imitatzen zuena lankideen dibertsiorako)... mendeak pasa zirela zirudien.

Atzean geratu zaizkio, baita ere, bere gidoilari anbizioak, inoiz izan baldin bazituen behintzat.

Geratzen zaizkion gauzen artean; hilabeteetan pilatzen joan den depresio onbera horren soberak, alde guzti-etatik irteten zaion gutxiagotasun-konplexua, loditzen ari denaren errealitatea, eta horrek dakarren inbidia, amorrua... beste gauzen artean.

Horrelako egunetan, erlaxaziozko audioa entzuteko momentua izaten zen. Kasko handiak jarrita, ahal bezain erosoan etzaten zen ohean, eta audioko emakumearen ahotsa (txikitako andereño batena gogorarazten ziona) bere inkontzientean barneratzeko prestatzen zen; erlaxatu buru-azala... eta orain erlaxatu mingaina... (nola arraio erlaxatzen dira bi horiek?). Hamar minutu pasata, zurrungan hasten zen. Inkontzienteak bere ordeztu lana egingo zuen. Aldaketa posible da beti... utzi pentsamendu negatiboak joaten... unibertsoak zure aldaketan lagunduko ditu... zoriona eta arrakasta merezi dituzu... errepikatu zure buruari, zoriona merezi duzu... aldaketa posible da beti... unibertsoak lagunduko ditu... zoriona eta arrakasta merezi dituzu... Amaieran audioko emakumea klimaxera iristen zen: MAITE ZAITUT, MAITATU ZURE BURUA! MAITATU ZURE BURUA!

(Mona Beadle, 'femme fatale' baten monologoa)

Kontua da Jonny nazka-nazka eginda zegoela nirekin, ze aldameneko pisuan bizi zen eta egunero ikusten ginen, eta ia egunero haserretzen ginen; bere lagun denekin oheratzen nintzela esaten zuen beti, baina hori ez da egia, David, Jonny baino lehenago ezagutu nuen adibidez, ez nekien lagunak zirela, nahiko lagun onak gainera, eta nik asko izorrratu nuen beren artekoa; esan nahi dut, oraindik lagunak izaten jarraitzen dute, baina ez da berdina, ulertzen da. Gero, Vincent, egia esan, ez dakit zergatik izan nuen historia hori inuzente horrekin, inoiz ez zait ondo erori, harro bat da, baina batzuetan grazia egiten du, esan behar dut Vincenten asuntoarekin bai pixka bat gaizki portatu nintzela Jonnyrekin ze batera egiten zuten lan eta Jonnyk berak aurkeztu zidan, baina zer nahi duzu esatea, Jonnyk eta nik inoiz ez genuen erlazio serio bat izan, ez era horretako erlazioz behintzat. Inoiz ez genuen hitz egin gure artekoaz; bale, jende guztiak esaten zigun ezkondata geundela ematen zuela, egun osoa batera eta liskarrean pasatzen genuelako, baina nik uste nuen biok brometan hartzen genituela komentarioak! Zein, Elliot? A, baina Elliot ez da kontatu ere egiten, Jonnyren ezagun bat bakarrik da.

(Henry Keates, Monaren Edingloweko hirugarren mutila eta azkena)

Edinglow. Barfly Cafe, Monaren lantokia.

Bazkalordua da, baina ez dabil jende asko jatetxean. Pare bat mahai bakarrik. Mahai batean turista familia bat; aita, ama eta semea. Beste mahaian, familiagandik

urrun eta izkina batean, 50 urte inguruko (igual gehiago) gizon bat, erakargarria eta interesgarria, Henry Keates. Ile zuria, trajea eta gorbata eta maleta beltz bat. Ziur aski ordenagailu portatila barruan, baina ez dakigu, ez du irekitzen. Kafe bat hartzen ari da, espresso.

Mona mahaiak garbitzen ari da, zer edo zer egitearren; bestela, nagusiak komunak garbitzera bidaliko du eta nazka ematen dio. Musika jarrita dago eta Mona kanta-marmarrean ari da. Henryk ea kanta ezagutzen duen galdetuko dio. Monak, lotsatuta, baietz esango dio. Henryk ea gustatzen zaion; Monak baietz. Henryk ea kafea berak egin duen; Monak baietz. Oso ona dago (Henry gezurretan). O, egitan? Oraindik ez dakit ondo kafea egiten (Mona umil-umil). Zer ordutan amaitzen duzu? (Monak ez daki egia esan edo ez, psikopata bat izan liteke baina ez du ematen). Nagusiari sudur puntan jartzen zaionean, funtsean (Horrelakoa zen bere ordutegia). Nire etxera etorri nahi? (Henryren emaztea oporretan dago ohi bezala bere anaia gayarekin Sardinian). Monak segundo gutxi batzuk ditu erabakitzeke berriro Henry psikopata bat den edo ez... zerbaitek esaten dio Henry fidatzekoa dela eta oso erakargarria... Ba, igual bai erantzuten du azkenean.

(Mona Beadle, monologoa, II.zatia)

Aste horretan Henryren lehengusua ezkontzen zen, eta ezkontzarako soinekoa erosten lagundu behar zidan Jonnyk. Bi hilabete pasa ziren Henry eta bere emaztea dibortziatu zirenetik eta Henryk gure artekoa ofizial egin nahi zuen. Horrela esaten da? ofizial edo publiko? Kontua da bi hilabete horietan Henryk eta nik ia egunero elkar ikusten genuela; egia esateko, bere etxean bizi nintzela ematen zuen, ia nire gauza guztiak bere apartamentuan nituen, oso gutxitan azaltzen nintzen nire pisura, nahiz eta oraindik errenta ordaintzen segitzen nuen, ez dakit ondo zergatik, eta oso gutxitan ikusten nuen Jonny denbora horretan. Azkenekoz elkar ikusi genuenean, mozkor-mozkor eginda geunden biak eta Henry eta nire artekoa serioa zen galdetu zidan. Baietz esan nion; eta ea zer ikusten nion zahar horri galdetu zidan; ez zela hain zaharra esan nion, kaka egitera joateko; eta berak ondo zekiela zer ikusten nion zaharrari, bere dirua, eta nazka ematen niola horregatik; kaka egitera joateko esan nion berriz eta nire pisura bueltatu nintzen. Behin nire ohean, ezin nuen burutik kendu aitak txikitzen esaten zidana, aberats batekin ezkondu behar duzu, Mona! Ez zaitez tuntuna izan, aberats bat bilatu...

Edinglow, 2011ko Urriak 27

—Ilea moztu duzu, Jonny; oso guapo zaude.

—Eskerrik asko. Askoek esan didate, bai!

Ze harrotuta dagoen gaur, ume txiki bat bezala, pentsatu zuen Monak:

—Denda honetan ikusi nuen soinekoa, ea gustatzen zaizun, ez nengoen seguru aurrekoan probatu nuenean.

A, bai! seguru, eta beste edozeini galdetu beharrean, niri galdetzen didazu... egin zuen Jonnyk, bere kautan.

Mona urduri dago soinekoa probatzen ari den bitartean aldagelan. Lotsatuta bezala, soinekoarekin Jonnyrengana ateratzeko eta hark goitik behera begiratzeko.

—Ba al gera? —galdetzen dio Jonnyk, eta Mona aldagelatik ateratzen da azkenean, krema kolorezko soineko batekin. Bere ile beltzarekin eta azal zuriarekin soinekoa primeran geratzen zaio, egia esateko, eta berak ere badaki.

Jonny guztiz harrিতuta laga du:

—Uau! Ondo geratzen zaizu!

—Hotz samar urrirako? —urduri oraindik.

—Ez dut uste. Erosi egin beharko zenuke.

Eguraldi ona egiten du (gauza oso arraroa) eta parkean daude eguzkia hartzen. Zerbeza batzuk erosi dituzte supermerkatuan eta pixka bat mozkortuta daude. Eta mozkortzen den bakoitzean mutil guztiekin gertatzen zaion bezala, Monak oso guapo ikusten du Jonny. Ordu batzuk beranduago, eguzkia ezkututzen hasten da eta parketik alde egiten dute. Monak pisura bueltatu behar du gauza batzuen bila eta batera doaz pisura. Egun oso ona pasa dute elkarrekin, gauzak diren bezala. Portalera iristen dira eta bakoitza bere atearan aurrean, agur esaten diote elkarri eta ez dakite ondo zer esan, noiz ikusiko diren berriro, orain oso gutxitan ikusten dute-eta elkar.

Mona etxera sartzen da, bere atzean atea ixten du eta pentsatzen du *Hau guztiz momentu horietako bat da, gertatzen ari da oraintxe bertan, hau dudarik gabe zerbait da, zerbait inportantea, orain atea joko dute eta Jonny da, maite nauela esango dit eta muxu eman*. Atearen kontra itxaroten du minutu pare batez; ezer ez. *Bera ere itxaroten ari da, klaro, ze hau gertatzen ari da, eta biotako batek lehenengo pausua eman behar du, baina bera ez da atrebitzen, klaro, azkenekoz izan genuen haserrealdiagatik oraindik beldurtuta dago, baina gaur argi geratu da biok zerbait sentitzen dugula, inoiz ez dut gauza hauetan kale egiten*. Arnasa sakon hartzen du eta Jonnyren atea jotzen ari da. *Ai ama, ai*

ama, ai ama! Jonny pixka bat luzatzen da atea irekitzen zeren bere pisukide Rossekin dago Xbox-ean jolasten.

—O!, Mona, zer egiten duzu hemen?

—Jonny... hitz egin behar dugula uste dut...

—Hitz egin? Zertaz?

—Ba... gutaz... Esan nahi dut, gaurko eguna eta...

—Zerbait gertatu da gaur?

—Jonny, ez zaitetz horrelakoa izan. Ondo dakizu zuk ere gure artean zerbait dagoela, beti egon dela...

—Barkatu, Mona, baina jada ez dut hori sentitzen zutaz. Gainera, Henryrekin zaude, gogoratzen?

Oso-oso umiliagarria.

Amaiera

Acapulco, Mexiko, 2011/11/24

Elcano luxuzko Hoteleko suitea. Pertsianak jaitsita daude; baina, hala ere, eguzkia sartzen da zirrikituetatik eta gela guztia argitzen du. Jacuzzi ardo botila garesti bat eta bi kopa daude. Oheko maindireak lurrean daude; bero handia egiten du. Henry, biluzik eta hanka zabalka lotan eta zurrungaka ari da, Mona esnatzen du. Ikaragarrizko ajea dauka Monak. Bi eskuekin eusten dio buruari eta, ohetik altxatuz, soinekoa bilatzen hasten da. Balkoira hurbiltzen da eta pertsiana zabaltzen du pixka bat, Henry ez molestatzeko. Zerbait botatzen zuen faltan eguzkia Edinglowen! Pamela handia eta hondartzako poltsa hartzen ditu, Octavio Pazen poesia liburua eta kartera, eguzkitako krema, toalla... Hondartzara jaisten da. Eguzkitako betaurrekoak jantzen ditu eta hoteleko erakusleihoan begiratzen dio bere irudiari. Ez du bere burua ezagutu ere egiten. Turista perbertitu batzuen aurrean, bere bikini berria estreinatzen du eta hamakan etzaten da. Segituan hoteleko zerbitzari gazteak (bere adina izango du), zerbait nahi duen galdetzen dio. Margarita bat eskatzen du. Ozeanoari begira, edariari trago bat ematen dio eta liburua irekitzen du, erditik, edozein orritan, 76.a tokatu da, *El otro*:

Se inventó una cara.

Detrás de ella

Vivió, murió y resucitó

Muchas veces.

Su cara

Hoy tiene las arrugas de esa cara.

Sus arrugas no tienen cara.

Liburua ixten du eta margaritari beste trago bat ematen dio, ozeanoari begira.

08:45

Garazi Urretabizkaia

Goizeko 08:45. Benetan gogoko zuen eguneko une hori. Bazirudien, batzuetan, une horrexek ematen zio-la bizitza den bide gogor honetan aurrera jarraitzeko indarra. Azken batean, nork jakingo zuen bada berak baino hobeto arnasa mozten zitzaiola neska hura lanera bidean ikuste zuen aldiro? Ez zen obsesio bat, behar bat baizik. Eta ia-ia ezinbestekoa. Ordu eta erdi lehenago jotzen zion jende gehienarentzat malapartatua izanagatik berak biziki maite zuen iratzargailuak. Jakin ongi baitzekien une horretatik aurrera eta eguzkia sartu artean, bere bizitzak beste zentzu bat izango zuela. Kontu handiz ohetik jaiki ostean, komunera sartzen zen guztiz biziberrituko zuen dutxa beroaren babesera. Hori zen azken hilabeteetan bere egunerokotasun monotontik gehien maite zuen bigarren gauza; ur beroaren pean, xaboia ahora gerturatu eta abeslari famatu gisa irudikatzen zen une hori. Maite zuen abestea, denetik gainera; indarra ematen zion 08:45ean bere buruarekin hobeto sentitzeko.

Dutxatik atera eta logelarantz jotzen zuen berriz ere, leihora gerturatu aurretik bere galarik onenak janzteko. Batzuetan tontakeria hutsa zela iruditzen zitzaion, azken batean, neskak ez baitzuen sekula laugarren pisu hartara begiratu. Baina, dena den, hobeto sentitzen zen horrela: gizonago, galaiago, konkistatzaileago. Egun horretan galtza beltz estuak janztea erabaki zuen, gainetik alkandora gorria janzten zuen bitartean. Gogoko zuen kolore gorria. Debekua zetorkion burura, eta amona mantangorriak, eta hainbeste gustatzen zitzaizkion terrorezko filmeetako odola... eta pasioa. Batez ere pasioa. Horixe baitzen azken 8 hilabeteetan bizitzeko indarra ematen ziona. Goizeko 08:45ean bere etxe azpitik igarotzen zen neska eder harekiko zuen pasioa.

Nahi gabe hasi zen guztia; kasualitate hutsez bezala. Beste edozein egun bezalako bat zen berarentzat, ze eguraldi egiten zuen ikusi asmoz leihora hurbildu zenean. Eta hantxe ikusi zuen neska eder haren imajina, kalean behera oinez, lainoz eginiko bide erosoan zehar flotatuz joango balitz bezala. Bere begiek 500 metro beherago kale amaierara iritsi zen arte jarraitu zioten; bere buruak, ordea, egun hartatik aurrera une

horretara arte jarraitu zion, momentu oro zertan ari ote zen imajinatuz. Batzuetan ilusio osoz 08:45ean leihoan egonagatik, neska ez zen bertatik pasatzen. Kasu horietan, besoak gurutzatu eta paparra leiho ertzean kokatuko zuen, agian berandutu egingo zitzaion esperantzarik gabeko esperoan murgilduz. Oraindik ez zuen neska hura irribarrez ikusi, baina ezta hain serio ere. Goizero lanera gogo gehiegirik gabe doanaren espresio estandarra zuela iruditu izan zitzaion beti. Baina, hala eta guztiz ere, aingeru aurpegia zuela pentsatzen zuen. Eta begiekin inertziaz jarraitzen zion aldiro bezala, buruari bueltak ematen hasi zen... Kanean topatuz gero zer esango zion pentsatzen zuen lehenengoz, gorputz erdian soilik nozituriko urduritasun atipiko batek harrapatzen zuen bitartean. Detaile osoz imajinatzen zuen bien arteko lehenengo afaria, nora eramango zuen, zer izango zuten jantzita, zein ardo eskatuko zuten (nahiz eta berak ardoa GORROTATU)... Ez zen sekula aspertzen neskak bere eskua mahai gainean ipini eta berak lehenengoz bere behatzak ukituko zituen unea imajinatzeaz. Batzuetan, egunaren eta umorearen arabera, istorioa aldatu egiten zen eta neskak kolpetik eskua kendu eta alde egiten zuen, bera mahaian iltzaturik utzita, ezin atzetik jarraituz. Besteetan, aldiz, neskak gustu handiz hartuko zuen fereka nimiño hori eta inkontzienteki murgilduko ziren muxu perfektuaren atmosferan. Baina imajina hori hain zen hauskorra, milisegundo gutxiren buruan ihes egiten ziola, esnatu ostean gau osoan hain erreal sentitutako ametsek ihes egiten duten modu berean. Neskak ez zion sekula begiratu. Etxepetik pasatzen zenean, berak zentimetro batzuk atzera mugitzen zuen bere gurgildun aulkia, neskak ikusi ezin ahal izateko. Segundo eskas bateko begirada kontaktuan bere burua salatuko lukeela iruditzen baitzitzaion. Azken batean, bera ohar-tuz gero interesa piztuko balitzaio, nola eramango luke dantzalekura? Zer egingo luke neskak hondartzara joan nahi izanez gero? Edo kirola egitera? Denbora gutxi-egi zeraman oraindik onartu ez zuen egoera berrian. Beraz, hantxe egongo zen, laugarren pisu galdu hartako leiho bazterrean frustrazio ezkutuz eta maitasunez beterik, egunero neska noiz igaroko zain...

Nor bera baino hobeto goizero 08:45ean loreen kaletik igarotzean laugarren pisu hartara begiratzea biziki kostatzen zaiola ohartzeko? Aste dezentetik igaro zituen, kale eder haren puntu konkretu hartatik igarotzean, norbaitek laugarren pisuan disimulu handiz erreza mugitzen zuela jabetzeko. Ez zion garrantzia handiegirik eman goiz batean begirada iheskor bat igarri eta behatua sentitu zen arte. Hasiera batean deseroso sentitu zen, OSO. Behatua zen orotan juzgatua sentitzen zelako. Arazo asko izan zituen txikitatik gai horren inguruan. Eskolan denak baztertzen zuten, argalegia zelako; etxean ume gisan tratatzen zuten 27 urte handi izanagatik ere, lanean beti lan sinpleenak agintzen zizkieten nahiz eta bi karrera unibertsitarioren jabe izan. Bakarrik sentitu ohi zen jendez inguraturik zegoen aldiro. Eta betidanik gorroto izan zuen sentsazio bat zen hura. Beraz, betiko alferrikako buruhausteak ekidin asmoz, kale hartatik igarotzeari utzi zion egun batzuetan.

Asko ziren lanera joateko har zitzakeen bideak; baina hura zen, denetan luzeena izanagatik, gehien gustatzen zitzaiona. Xarma berezia zuen balkoi handi eta orbangabeez zein kolore eta usain ezberdinetako lorez dotoretutako oinezkoentzako kale hark. Azkar hasi zen

bertako lasaitasuna eta bizilagunen goizeroko patxada hura faltan bilatzen. Eta zergatik ukatu, kalera ateratzeko apain-apain jartzen zen bitartean, begiratua izateak sortzen duen auto-estima igoera inkontzientearen sentsazioa berriz bizitu nahia sentitu zuen. Beraz, bidez aldatzea erabaki eta laugarren egunean, betikoari ekitea adostu zuen berriz. Ongi sentitzen zen bertatik igarotzen begi berde haien babesean. Lehenago esnatzen hasi zen, bere burua edertzeari denbora gehiago eskaintzen, gehiago maitatzen, sekula baztertzen ez zuten nini haiei eguneroko dosia emateko asmoz. Beti pentsatu izan zuen begi horiek ezin zutela irribarre eder, kolosal baten-gandik urrun egon; ezta berak aspalditik entzuteko beharra zuen hitz goxoetatik ere. Batzuetan, bera balkoira atera eta irribarre zabal batekin egunonak ematen zizkiola imajinatzen menturatzen zen, hotzikara ñabar batek gorputza urduritzen zion bitartean. Izen bat asmatu zion, eta lanpostu bat. Begi haientzat fikziozko bizitza bat ere sortu zuen, baita bien arimak batuko zituen etorkizun komun bat ere. Dena zen perfektua, dena izango da perfektua. Gauza bakarra da beldurtzen duena. Lehenengo zitan afaltzen dauden bitartean mutilak ardo eskatu eta berak alergia diola esan beharko dion une deseroso hori...

Baina zein uda bakarra

Mirari Arriola

Ilun daude Erromako kaleak, ilun eRomakoak. Etxe-etatik jausten dira elektrizitate kableak, goitik behera, ordenarik gabe, instalakuntza finkorik gabe, elkar laz-tantzen dutelarik haizearekin dantzan, balantzan.

Esnatu eta pentsatu, inprobisatu, probatu, huts egin, huts egitetik ikasi edo ikasi nahi ez izatea eta atzera begira jartzea, zergatik huts egin ote zenuen galdetzen. Esnatzea besterik ez da, dena berriz hasiz, pentsatu, inpro-bisatu... edo ez, ez pentsatu, eta horrela egunero, dato-rrenari ongi etorria ematea ez ahaztuz; baina, ongi ez dela etorri ikusiz gero, adiorik esaten molestiarik har-tu gabe, joaten utziz.

—Egun on, Berlusconi jauna, zergatik begiratzen nau horrela?

—Ez haut ulertzen; tarteka Talioiaren legea aplika behar hunake, *begia begi truk*, odolkiak ordainetan ale-gia; baina ez, hi arinegia haiz, eta hortxe justizia egi-teko prest beti eta bakoitzari berea samurki! Ez al haiz konturatzen gero ez dunala praktikan jartzen justizia hori? Utz itzan arinkeriak eta jaitsi hadi mundura!

Azaleko txorakeriek itotzen gintuzten; hori bai, kasurik egiten ez badizut, berriz hasi irakurtzen eta... *ongi ez dela etorri ikusiz gero...*; justizia!

Senza parole, hitz gabe, itzuli eta ezer aldatu ez dela sentitzea, ni aldatu naizela edo denak nirekiko; berriz pentsatzen hastea eta, ohartu gabe, nostalgia sentitzea, bi malko isuri eta eternitatean pentsatzea, barnetik jario-takoarekin erabat hustu naizelakoan.

Azken gauean idatziriko azken desirak erre, haien ke-pean solastatu eta inoiz ahaztuko ez zaituztedala eskatuz, agurrik esan gabe, besarkada batekin festara nola zin-doazen ikustea, beti bezain *divino*. Zu aldiz, nola ez, zu, agurtu ere ez egitea, nola agurtu, aukerarik izan gabe?

Ohetik altxa, gosaldurik, jantzi eta maletak hartuz, inor lo sakonetik esnatu gabe eta azken pisukideei adiorik esan gabe, gero arte ohar bat idatzi, arnasa hartu, azken eRomako airea biriketean sartu eta autobusera iristea. Azken agurraren sms-ak idaztea, nolabait zentimo hon-darrak norbaitekin konpartitzearen; nostalgiaz negar egitea, hegazkinak lurra uztean oroitzapen bakoitza segun-do erdi batean nola doan sentitzea, berriz ere barnea

lehertuz; albokoak ni eta nire malkoak nahiz begi txarrez begiratu.

La bella Roma, zein polita zeunden azken une har-tan, hain txiki ikusten zintudan hegazkin leihotik, txoko guzti-guztiak, hain argi, eguzkitsu... pena bakarra, hegazkinaren inklinazioarekin begi bistatik galdu zin-tudala. Baina han zen etxe hura, han pasaturiko azken uneak, segundoak, esandako azken hitzak, azken minak, zure etxeari begira geratu nintzen, nahiz urruntasun har-tatik izan, zure etxea izan zen ikusi nuen azken eraiki-na.

Bukatu dira azken *spagetti* platerkadak ardo zuriarekin, azken *ryanair* tarjeta merkeak, Tevere ibai zikina, baina haren inguruak zuen xarma. Vatikanoko *dictablanda* eta Strada gaztetxea, bertako azken hitzaldia, azken *aperi-tivi*-a eta senegaldarraren bizitza latzaren azken pasarteak, jai zituen igandek erori arte Marokoko txokolatea erre-tzen pasatzen zituen, penak ezabatu nahian edo. Akabo presidente *puteroa* eta haren demokrazia diskurtsoak.

Ron Caribe merkea eta haren buruko minak, gaueko hutsuneak eta azken *spidifriend*-ak; damutzea. Pasatu dira anabasaren erdian etxea lortzearen zortea dastatu nueneko aldia, bisitak, turista izatetik bertako izatera pasa nintzenekoa, kalean, supermerkatuan, gimna-sioan... jendea agurtzera iristeraino.

Adio Terminiko anabasa, bizitzea zein gogorra den islatzen zuten pertsonak, elkar pilatuta, denen artean beroa sortu nahian bezala ihes egiten zioten hotzari eta logurari; bazekiten hotzarekin ez zutela lorik hartuko baina... Adio metrora sartzeko egin beharreko ibilbidea, bertan galdu eta ordu erdira lehengo lekuan zeu aurki-tzearen poza; *uscita al lato destro*, irteera eskuinera. Tuodi supermerkatuko jogurt merkeenak gozoenak zirela jabetu nintzeneko momentua, kokozkoak zure zaporea zuen. Ricota entsaladan nahasia, hozkailuan ezer ez eduki-ta ere platerkada ongi landuak ateratzen ziren garai haiek; Peroni garagardoaren 66cl-ak. Lehen *apelo*-a (azterketa aukera), bigarrena, hirugarrena... ahozko azterketetako kakalarriak, klaseak?; San Lorenzo eta bertako jendea, ustekabean etxeko arropa suizidek Erroma futbol taldekoen lokalean bukatu zutenekoa; gauak, egunak,

gauak, egunak... futbol afizioaren ondorioak jasaten.

Max etxean sartzea, konturatzerako irtetea, baina berarekin emandako filosofia gau hura, jendea irteten eta sartzen ikustea, bi, hiru edo laugarren etxea ere nirea bailitzan sentitzea. Vittorio Emanueleko 10. etxean (barkatu, zenbatgarrena zen zuen txirrina?) emaniko gauak, egunak, hizketaldiak, zerbezak, kubatak, sangriak, balkoitik beherako bedeinkazioak eta bataioak, juerga gau haietan konpartituriko zuen etxeetako oheak, sonanbuluak, inork itzaltzen ez zituen iratzargailuak...

Sciopero tutto il giorno (greba egun osoan) eta *scoperò tutto il giorno* (egun guztian larrua joko dut) jasanezina? Nola nahasi zinen? 18 euroko bonobusa, txartelik gabeko lasaitasunak eta 50 euroko multak; n1, n2, n3... inoiz iristen ez ziren gautxoriak eta beren amortiguazioak galtzarritzko lur irregularretan; *deposito* (biltegi) edo *fuori servizio*-n (zerbitzuz kanpo) bizi nahi izatea. Hondartzarako bidaiak laburrak, salsa dantza beroak, hango salseroak eta salsa lokaletan emandako uneak. Fakultateak festa leku bihurtzea, Marilyn eta hango kopa suizida bakoitza, astelehen *alternatiboak* San Lorenzon.

Ciao merkeak, skype-ko hizketaldi laburrak, (*bai ama! jango dut haragia tarteka!*) euskal kultura uztartzea eta euskal dantzen ondorengo politika hizketaldiak, Adriano maisua, Alexek beteriko aita papera, Marleneren sexu aholkuak eta Vivianaren ezusteko Brasilgo bidaiak. Zerbeza bat, bost, sei edo zazpi bihurtzen zireneko aldiak; mendi buelta, bidaiak xebreak eta azken egunak pasatzen ikustea, nahi ez izatea, baina nola doazen ikustea... Badoaz... badoaz... zein azkar...

Haize pixka bat eta nostalgiaren hutsunea hutsuneak betetzen, denbora gehiegi igarota jada, izozki bat nuen eskuan (kukurutxorik gabe, mesedez!) eta lekua ia perfektua zen, gaugiro bikaina begiralekuan, bertako egurrezko bankutik. Aurrean Vatikanoko estatu *askea* eta atzean, Giacobbo jardina eta palazio bikainak. Marko perfektua maitasun argazki batentzat, paisaia ezin hobea elkar larrutzeko. Zure ahotik irtendako hitz jarioak argazkia izorratu zuen arte; hitz kateatuak, batak bestea janez, astiro-astiro. Lurraren pareraino eraitsi ninduzun, zapaldu eta zein gustura geratu zinen. Ihes egitea nuen irtenbide onena, norik esan ote zidan, ordea, hitz bakoitzak nola akribillatzen ninduen uzteko, isil-isilik, lau errege eskuan eta hordagoa jotzeko adorerik ez. Baina hain zen paisaia perfektua...

Ez nenbilen istorio arrosa baten bila, baina ez dut ulertuko zenbat urruntzen gintuen batzen gintuen

hark. Bizkarra ematen nizun lo hartzen zenuen bakoitzean, egia esan ez nintzen beterik sentitzen, zugandik urrun nengoen arte. Orduan zutaz pentsatzen nuen, oinez, korrika, gosaltzen, hortzak garbitzen, janzten, eguzkipean, itsasoan edo izozkia hartzen nuen bakoitzean... Argazki bakoitzean, oroitzean, ahaztean; nolatan ez nintzen gai izan min ematen zenidan bakoitzean ezer esateko? *non lo voleva*, ez nuen nahi.

Bota nahi nizkizun egiak, egia guztiak, hutsik geratu arte, zer zegoen eta zer ez zegoen. Ez nizun lorerik eramango, ez eta kaixorik, udazkenez jantzita joango nintzen. Ez nekien, momentu bakoitza azkar pasatzea nahi nuen, berehala ahazteko, edo eternitatea iraun zezan nahiago nuen, nahiz gustura ez egon, zure alboan bainengoen. Noiz utzi ote genuen goxotasuna alde batera, elkar jipoitzen hasteko? Ez zinen espero nuena, zeu ere hilkorra zinen. Zein gustuko zintudan gezurak esaten zenituenean, lagunak omen ginela, polit-polit marraztu zenuenean; esan hitz itsusiak eta utzi politikak datorren baterako!

Ongi dastatu nituen mespretxuzko hitz guztiak, bana-bana dastatu ere, banaka baina denak, mokadutxoka, errenkan. Errespetu kontzeptuaren definizioa ulertu gabe agian? Barrez lehertzen zinen, nire pena bakarra barrean ez zintuela barnetik lehertu. Aio! Hizki gehiagoko hitzik merezi al du bada zuri eginiko azkenak? Ez nion nire intimitateari aterik jarri nahi, mugarik ezarri nahi; nire pentsamenduek, sentimenduek aske nahi zuten.

—Gau ona pasa beza, Berlusconi jauna, hurrengo sexu gauean ikusiko dugu elkar! —entzungor dirudizu.

La bella Roma, galdu zaitut jada begi bistatik; orain, ordea, Gorbea, Aralarko mendikatea eta Txindoki, zeuok identifikatu zaituztet mapa berrian hegazkineko leihatilatik, tarteka hodei batzuek tapatzen zaituzteten arren. Ostera ere, piztu dut musika, bidaiak mordoa egina badute *lasaiak* karpeta kantek, tren hotzenetan ere belarriak berotuz, lo hartzeko edo negar egiteko, Vasco Rossiren musikak jotzen du aurikularren bestaldean. Berriz ere etxera bueltan, bi pauso eskuinera eta Frantzia, bi ezkerre eta Espainia, bi gezur eta demokrazia, hiru eta mafia. Amaierari hasiera bat jarri!

Hutsik dago gela, hutsik sukalde, hutsik zuen tinbrearen atzeko jarduna. Balkoitik uda usaintzen da, baina zein uda bakarra, betikora itzuli eta betiko leloa abestera...

Bei gizenak eta bei argalak

Joxe Mari Lertxundi

Urtez atzera egin da
ogeitamarretan,
goraka ekin genion
pauso baikorretan,
bereala iritsi
giñan gallurretan.
Irietan bezala
erri koxkorretan,
leenago bizi Iekuz
zeudenak errentan,
gero jabego egin da
etxe ederretan.
Era berean beste
ainbat alorretan,
industri, etxegintza,
eta abarretan,
asko ziran sakelak
beteak urretan.
Bizi malla jarri zan
zeruko izarretan,
uste genuen beti
guk era orretan,
jokatu ez degulako
neurri zuurretan.
Orain erori gera
urte ezkorretan,
bei gizenak biurtu
dira argaletan,
leen pagotxa bazkatuz
lasai ausnarretan,
orain ase eziñik
almitz belarretan.
Erri bizitzan ere
ala bearretan,

gaitz bat sartua dago
gazte ta zaarretan,
ia urte erdia
festa ta oporretan,
orrela sartzen dira
gastu gogorretan,
sos guztiak botiaz
gauza koldarretan,
gero zama aundia
bere bizkarretan.
Leen egan zebiltzanak
gaur doaz lorretan,
langabezia ere
urte bakarretan,
oso gora igo da
ego iparretan.
Agintariak, berriz,
danak gezurretan,
krisiaren amaia
dagoela bertan,
esanez telebista
ta irratietan.
Bakea oiukatu
arren batzarretan,
konterri asko daude
naasturik gerretan,
bartzarrak suntsituaz
tiro sugarretan,
konpontzio itxurik
ez dago ezertan.
Batzuen poza, berriz,
ekintza txarretan,
argatik sartzen dira
bide okerretan,

aker beltzak arturik
bere adarretan,
murgil arazten ditu
joko makurretan,
erasoaz ilketa
eta lapurretan.
Mundua dago orain
oien beldurretan,
babes itxaropena
du militarretan
edo ejerzitoak
dauzkan indarretan.
Eta prestatzen dira
garaiko armetan,
erosketak egiñez
ainbat biderretan,
sartutzen dira gastu
aundi zamarretan,
zor galantak egiñez
euro dolarretan.
Diru kutxak utzirik
azken kondarretan,
zaindu ez diralako
bear den arretan,
mixeria gallendu
zaigu baztarretan.
Irri barrak biurtu
dira negarretan,
nola nagusi etxe
ala maizterretan,
bizi bearko degu
guztiok zorretan.

Ilusioaren kolorea

Garazi Urretabizkaia

Hirurogeita hamabi urte
eta bizitzaren trenak
geltoki ugari igaro ditu
itzuliko ez direnak.
Biziak ditut famili pozak
eta gerrateen penak,
ta pixkanaka konponduz doaz
lehen zirenak problemak.
Baina oraindik heltzeko daude
nire momentu onenak.

Dena eman ta ezer jaso ez
badaukat hainbat meritu!
Gutxi batzutan garaile izan naiz
ta gehienetan zauritu.
Ilusioak jaiotzen ziren
baina haizeak barreiatu,
barrua ireki eta kolpetik
isiltasuna aditu...
Sekula ez nuen nire bihotza
beteko zuenik aurkitu

Erlojuaren tik-tak horretan
paradisu ala infernu?
Galdera orenen erantzun oro
ziur jakingo bagenu!
Beti itxaron, noren zain egon...
baina ez zen sekula heldu
Igaro ziren itxaropenak
ta bertan nintzen usteldu.
Urterik urte nire bihotza
pixkanaka zen moteldu

Baina kolpetik, espero gabe
hortxe azaldu zen bera,
Goiko Kaleko etxeko dama,
eder askoa, gainera!
Eta bihotza salta-saltaka
orain gora, orain behera...
Halakoetan arraro xamar
sentitu ohi da norbera.
Sikiera orain arrazoi bat dut
ateratzeko kalera

Gaztetasuna senti nezake
gorputz irmoan barrena
ta sentitzen dut arazo denei
aurre egiteko ahalmena.
Bere irudia hain da ederra,
utopikoa, gardena...
Oraingo hontan egin behar dut
nire esku dagoen dena!
Amodio fin zahar berritu hau
bihur ez dadin kondena

Etorkizuna neurtzerik balitz
erlojuaren orratzekin...
Denbora zaindu ahalko bagenu
ilusio galduekin...
Zenbat iraungo dudan galdezka
hainbat zartada, hainbat min
Eskutan tinko hartu behar dut,
ametsa nirea egin
Oraingo hontan saiatuko naiz
nahiz agian berak ezin.

Itsaso eta lurren arteko
marran dut oina pausatu,
nire barneko kezka bakoitza
arantzetatik askatu,
tristuren geza eta pozaren
gozotasuna dastatu...
Ezinezkoa dena amestu
ta momentua gozatu!
Zahartzaroan egonagatik
biziak kolorea baitu.

Sentimenduez

Iker Gurrutxaga

Ez da erreza behar bezala
sentipenak azaltzea,
horregatik da gure ohitura
barruan ezkutatzea.
Sentimenduak edukitzeak
dakar bizi sentitzea.
Bertso hauetan egin den lana
beraiek deskribatzea,
ta espero dut gutxienean
zerbait ongi ulertzea.

MAITASUNA

Homosexualek oraindik
honetan dute zentsura.
Beste batzuentzat dakar
elkarrekiko lotura.
Emakume askorentzat
eguneroko faktura,
maitasunaren trukean
ubelduraz ubeldura...
Elkarbanatzen denean
bikotearen onura.
Ta su horrek irautea
norberarentzat ardura.
Askorentzat ilusioz
elikatzen den tristura.
Zoriontasun betea
guztiontzako helmuga.

DAMUA

Egun luzea izan da
eta nago neka-neka;
hala ere, derrigorrez,
bihar lantokira buelta.
Banku batean eseri
eta egin gogoeta:
nire kulpaz izan dugu
sesioa, errieta.
Zeharo okerra dago
nire ezpaineko mueka,
egindakoaz pentsatuz
dauzkat begiak beteta.
Haserrea pasako al da?
Horixe da nire kezka...
Damutzea alferrik da,
beranduegi da-eta.

DESILUSIOA

Zerbait egiten saiatu
ta jaso ukazioa,
ilusioak uxatuz,
dator desilusioa.
Guztia atzera bota
nahiz ta izan desioa,
batek hala nahi izanda
alboratu pasioa.
Bizitzak askotan eman
izan digun lezioa,
nahiz ta askotan nahigabe
bihurtzen den bizioa.
Gizakiak bere baitan
askotan duen zioa,
tristura sentitzeaz gain
sortuz amorrazioa.

POZTASUNA

Nahiko nuke egun batez
pailazoa izatea,
bat'e axolarik gabe
nahi dudana egitea.
Jendaurrean lasai jarri
eta sentitu askea
eta haurren ezpainetan
irrifarra marraztea.
Nork ez dauka gauza oso
ederra dena(re)n ustea?
Lortzen asko kostatu zaigu
eta ez al da tristea?
Merkea da albokoa
zinez gustora uztea
ta zein ona den norbaitek
poza sentiaraztea.

Kontrola

Goiuri Unanue

Deskontrolak kontrolatzen nauenean

Ilargipeko gauetan,
zure alboan aurkitzen dut kontrola;
baina, ez zaudenean, eskuetatik ihes egiten dit.
Urrun zaudela pentsatzeak,
zure fereken biktima izan ezinaren errealitateak,
deskontrolak sortzen didan barneko kartzelan preso
hartzen nau.
Baina deskontrol horrek badu ezer onik,
itzultzean, fereka, zirri, laztan guzti horien lekuko
izango naiz,
deskontrol horren indarra konpentsatzen duen sua
nire gorputzaz
jabetzen delarik...

zu alboan zaitudan artean

Neguko hotzak ilargia du maite.
Tinko eusten dio eguzkia gailendu arte.
Baina ez dira errenditzen.
Gaua iristean maitale dira izarren argitan.

Eta ni begira geratzen natzaie
nire logelako leihotik, zu alboan zaitudan artean.

Euren arteko maitasunak
kaleko berotasun guztia xurgatzen duela
ohartzen naiz, beroa xurgatuz elur zuri hotza isurtzen
dutela.
Eta kaleko bero guztia xahutzen duten artean, guk
etxekoa geureganatzen dugu, elur malutek ingu-
ratzen gaituztela, ferekek igorritako elur malutek.

Ihes egitean

Gauaren argitan ormaren atzean gordetzen zara,
ikus ez zaitzaten.

Beldur zara, olatuak harrapatuko zaituen beldur.
Busti egingo zaren beldur,
hotz izango zaren beldur.

Horregatik zoaz lasterka,
lasterka egunaren ilunean babestuko ote zaren
esperantzaz.
Ikus ez zaitzaten.
Itsasertzean kontrola zure esku izango duzulakoan.
Olatuak baretu direla ohartzean, marea beherantz
doala dakizunean.

Beti iheska zabiltza, ordea.
Eta ez zara ohartzen bidean harribitxi ugari ahaztu
zaizkizula.
Olatua gainera zetorkizunetan.
Beldur zinenetan hesi batez babestu zizuten har-
ribitxiak,
uste ez duzun arren, zure biziaren parte bihurtu ziren
harribitxiak.

Ez duzu konturatu nahi harribitxi horietan zure
izena grabatua utzi duzuna.
Harribitxi horiek, zure presentzia faltan arrunt
bihurtuko direla
Bitxi egiten dituen hori zu baitzara.

Badakit, badakit ez duzula uste horren garrantzitsua
denik
horrenbeste beldurtzen zaituzten olatu horien gain-
era salto egitea,
bertan murgiltzea, beldurrei aurre egitea.

Baina badakizu berriz ere gauaren argia datorkizula.
Badakizu, berriz ere, ormaren atzean gorde beharko
zarela,
ikus ez zaitzaten.

Bihotzetik behatzetara bunkitu

Idoia Etxabe

Amaitu da
hautaturiko sufrimendua,
folio zuriz beteriko eremu lauetatik
ihes egitea lortu dugu eta...

Heldu da barealdia,
asteburuan apurtzea da gure patua,
eskemetatik at amestuko dugu,
inoiz entzungo duzun doinurik ederrenez nire inguruak jorratuz...

Denbora geldituko dugu,
ateak apurtuz, leihoetatik salto eginez,
hilezkorrak izango gara...
gauaren babesean...

Zoriontasuna edanaren bitartez
puntu kardinal guztietara hedatuz,
momentu batez arazorik ez dugula sinistuko dugu,
eta eguzkiak sorturiko itzal bakoitzean, desberdintasunek eraikitako
hesi guztietan,
bakardadeak sorturiko kantu bakoitzean

irribarreak marraztuko ditugu,
edozein kolorez.

Bihotzetik behatzetara dagoen bidetik barrena.

